

2/2019 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
MARTXOAREN 12an EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

MAHAIBURUA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*.

1. PRESIDENTEORDEA:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea*.

2. PRESIDENTEORDEA:

Jesús M^a Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea*.

MAHAIKIDEAK:

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea*.

D. Ángel Obanos Galar, *Artikako Kontzejuko burua*.

Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea*.

David Alvarez Yanguas jn., *Castejónko alkatea*.

Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko Kontzejuko burua*.

Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea*.

María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*.

Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea*.

Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*.

Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua*.

Ezin etorria adierazi dute:

Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*.

Yolanda González García and., *Vianako alkatea*.

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemeretzi martxoaren hamabian, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERREDA

- 1º.- Aurreko bilkuraren akta onestea.
- 2º.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.
- 3º.- Lankidetzaren hitzarmena Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioaren, La Caixa eta Nafarroako Kutxaren fundazioen artean (Hiri eremuak berreskuratzeko proiektua).
- 4º.- Langileen enplegu baldintzak.
- 5º.- Proposamena superabitaren erabileraren inguruan
- 6º.- Informazioa Gizarte Zerbitzuak Finantzatzeko Foru Dekretu berri baten tramitazioaz.
- 7º.- Informazioa hauteskundeetako gastu mugaz eta udal hautagaitzen gaineko ukipenez.
- 8º.- Presidentearen informazioa.
- 9º.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharririk duen haren inguruan.

Bilkurara joandakoek

ERABAKI DUTE:

2019ko otsailaren 12an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Klimaren eta energiaren aldeko itun bat Nafarroara egokitua prestatzeko alkateen lan taldea. (2019/02/15).**Jakinarazi da ekin zaiola toki entitateak biltzeari, eta, horretarako, gutun bana igorri zaiela klimaren aldeko konpromisoak hartzeko.
- **Eskolatzearen Batzorde Nagusia. (2019/02/15).**
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua. (2019/02/25).**Aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ziren.
- **SITNA koordinatzeko Batzordea (2019/02/27).**
- **Nafarroako Eskola Kontseilua. (2019/02/27).**Kontseilu horretako ordezkariak aditzera eman du hartan aldaketa batzuen berri eman zutela, irakasleak ebaluatzeko sistemari eta lanbide prestakuntzari dagokienez.
- **Kirolaren Gizabide Batzordea. (2019/02/28).**
- **Nafarroako Erroldatze Kontseilua. (2019/03/01).**Bajak tramitatu ziren.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua. (2019/03/11).**
- **Nafarroako Garraioaren Kontseilua. (2019/03/12).**Kontseilu horretako ordezkariak aditzera eman zuen araudi proiektu bat tramitatzen ari dela kontseilu horren osaera aldatzeko, kide berriak sartzea aurreikusten baita, besteak beste Iruñerriko Mankomunitatea eta sindikatuak. Halaber, Bidaiarien hiri arteko garraioaren Nafarroako Plan Integralaren berri eman zen. Nabarmendu zuen hamar kontzesio egin gogo direla, txartela bakarra ezarri Nafarroa osorako eta autobusen flota berri. Plan horri dagokionez, argibide gehiago eman ditu Batzorde Betearazleko kide guztiei igor dakien.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA. Lankidetzaren hitzarmena Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren, La Caixa eta Nafarroako Kutxaren fundazioen artean (Hiri eremuak berreskuratzeko proiektua).

Presidenteak proposatu du lankidetzaren hitzarmen berri bat izenpetzea La Caixa eta Nafarroako Kutxa fundazioekin, helburu izan den duela diruz laguntzea hiri eremuak berreskuratzeko proiektuak. Aurreko ekitaldietan izenpetu den hitzarmen bera da, aurtengoa hitzarmenaren seigarren edizioa baita.

Proiektua deialdi baten bidez gauzatu da, 2.000 biztanletik beherako toki entitateek finantzatu ahal izan dituzten Politika Sozialerako Departamentuaren edo Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren deialdiaren babesean laneratzeko xedearekin ekitaldi honetan kontratatutako langileek beren jardueran erabili dituzten materialak. Hitzarmenaren arabera, NUKFk 90.000 euroko ekarpena jasoko du, betiere dagokion proiektuari esleitzen badien oso-osorik.

Behin hitzarmena onetsita, deialdiaren beharrezko oinarriak prestatuko dira, aurreko ekitaldian onetsi zirenak bezalakoak, halako eran non toki entitate guztiek aukera izan den baitute proiektuak aurkezteko. Batzorde Betearazleak onetsiko du deialdia.

ERABAKI DA:

Lankidetzaren hitzarmen hori onestea, eranskinean ageri dena, eta, horrenbestez, gaitasuna ematea presidenteari sinatu dezan.

4. PUNTUA. Langileen enplegu baldintzak

Proposatu da %20ko lanpostu osagarria esleitzea José Ángel Ipiña Parisi martxoaren 12tik aurrera, egun horretan urtebetea egiten baita lanean hasi zenetik María Jesús Euguiaren baja betetzeko, eta egiaztatzen baita baja hori beste 6 hilabete gehiago luzatuko dela.

Azaldu da osagarri hori esleitzen dela lanpostua finkatutakoan, eta urtebete iragan dela horretan hasi zenetik.

ERABAKI DA:

Onestea %20 lanpostu osagarria esleitzea José Ángel Ipiña Parisi, ondorioak martxoaren 12tik aurrera izanik.

5. PUNTUA. Proposamena superabitaren erabileraren inguruan

Presidenteak dioenez, beharrezkoa da gobernu zentralari eskatzea neurriak har ditzala 2019ko ekitaldira luzatzeko superabitaren arau berezien aplikazioa, azkenean onetsi ez zen Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektuan aurreikusita zegoen bezala, eta, zentzu horretan, proposatu du deialdiarekin batera igorritako proposamena onestea.

Alvarez jaunak uste du erabakiaren proposamena beharrezkoa dela, baina uste du harago joan beharra dagoela eta eskatu du Egonkortasunari buruzko Legea eta Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua indargabetzea.

Garbayo andrea bat dator proposamenarekin, baina uste du bereizi behar direla ahalegindu diren eta gauzak ongi egin dituzten udalak.

Goldarazena jaunak esan du kontuan hartu behar dela aurreko udalek egindakotik abiatzen garela udaletara ailegatzen garenean.

Recalde andreak adierazi du zenbait udal zorpetu direla, ahal zuten punturaino, eta horrek ez du esan nahi ez dutela konplitu.

Albizu jauna iritzi berekoa da.

Presidenteak proposatu du beste puntu bat eranstea proposamenari, Nafarroako 90 udalek baino gehiagok onetsitako mozioen edukia bilduko duena, baita NUKFren Batzarraren erabakia ere, eta gero proposamena onestea.

Gaia Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

ERABAKI DA

Bigarren zati hori hasierako proposamenari eranstea.

Gero, proposamen berria Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

Aho batez,

ERABAKI DA

Lehenbizikoa. Gobernu zentralari eskatzea beharrezko araudia presta dezan 2019ko ekitaldira luzatzeko superabitaren arau berezien aplikazioa, zeinak aurreikusita baitaude Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko Lege Organikoaren seigarren xedapen gehigarrian, onetsi ez den Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen proiektuan aurreikusita zegoen bezala.

Bigarrena. Berrestea ezen, Nafarroako 90 udalek baino gehiagok erabakitako moztetan adierazi bezala, bai eta Federazioaren Batzar Nagusiak berak 2015eko abenduaren 18an hartutako erabakian ere, zeinaren berri eman baitzitzaien botere publiko eskudun guztiei, beharrezkoa dela indarririk gabe uztea Espainiako Konstituzioaren 135. artikuluko aldaketa eta 2/2012 eta 27/2013 legeak, murrizten dutelako toki entitateek beren eskumenak kudeatu eta erabiltzeko duten ahalmena.

6. PUNTUA.- Informazioa Gizarte Zerbitzuak Finantzatzeko Foru Dekretu berri baten tramitazioaz.

Presidenteak jakinarazi du bilera bat egin zuela Eskubide Sozialetako kontseilariarekin, non azaldu baitzitzaion dekretu berri baten proiektua tramitatzen ari dela oinarrizko gizarte zerbitzuak finantzatzeko. Bilkuran jakinarazi ziguten zein diren proiektuaren ildo nagusiak, zer aldatuko den egun indarra duenaren aldean eta Departamentuak proiektua tramitatu gogo duela, jakinda ere ez dagoela astirik legegintzaldi honetan onesteko. Toki Araubideko Foru Batzordean txostena egin beharko zaio proiektuari, baina, jendaurrean paratu baino lehen, NUKFren lehenengo iritzia ezagutu nahi zuen.

Gero, idazkari nagusiak eta Fermín Cabasesek hartu dute hitza proiektuaren berritasun nagusiak laburbiltzeko.

Azaldu dute gizarte zerbitzuen oraingo egoera dela abiapuntua, kontuan izan gabe Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Legeak gizarte zerbitzuen eskumenaz eta haien finantzazioaz aurreikusten duena. Azaldu dute horrek ekarriko duela oinarrizko ekipoaren tamaina aldatzea, beharrezko langileak erantsiko baitira enplegu sozial babesturako, drogen menpekotasunaren planerako eta larrialdiko laguntzarako, zeinak lehen kanpo zeuden, berariazko deialdien bidez egiten baitziren.

Dekretuak ezartzen du nahitaezkoak direla lau programak eskualde guztietan, eta hiru urteko epea ezartzen du oinarrizko ekipoa egokitzeko.

Kostuak eta finantzazioa bereizten ditu. Lehenengoei dagokienez, egiturazko kostu bat ezartzen du, barne biltzen dituen soldaten kostua, funtzionamenduarena, eta lurralde-sakabanaketari lotutakoa. Berariazko kostuak ere badaude, gizartearen errealitatearen ezaugarriak lotuak, eta, bukatzeko, aitortpen

ofizialeko dependentzia dutenen kostua. Kostu horretan estimatzen da zenbat ordu izan diren benetan arreta zuzenekoak, prezioztat harturik egun aplikatzen ari den formula.

Finantzazioari dagokionez, portzentaje finantzarriak aplikatzen dira, eta dependentzia dutenen finantzazioa dela-eta nabarmendu denez, aurreikusten da erabiltzaileen tasetatik lortutako diru-sarrerak kenduko direla estimatutako kostuaren %100etik. Gai horretaz, adierazi da dudak sortzen dituela zenbait erabaki judizialengatik.

Bertaratutakoek galdera batzuk egin dituzte oinarritzko ekipoaren inguruan eta horretara egokitzeko prozesuaren inguruan. Halaber, egiaztatu da zaila dela zehaztea zenbateko kostua izanen duen eta datu horiek mankomunitateen esku daudela.

Alvarez jaunak adierazi du arraroa dela erreforma ez hartzea ardatz. Modu positiboan baloratu du gizarteratze proiektuak kontuan hartzea, baina, haren ustez, lortu beharko litzateke gizarte zerbitzuen finantzazioa %100ekoa izatea.

ERABAKI DA

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

7. PUNTUA.- Informazioa hauteskundeetako gastu mugaz eta udal hautagaitzen gaineko ukipenez.

Aditzera eman da zer egin den hautesle-elkarteen eta hauteskunde gastuaren mugaren inguruan. Azaldu da ezen, hauteskunde orokorren deialdia dela eta, ez dela posible izan hauteskundeei buruzko legea aldatu NUKFk proposatu bezala, eta, horrenbestez, hauteskunde hauetan muga berak aplikatuko direla.

Zehapen espedientei dagokienez, jakinarazi du aurrera doazela eta badagoela zehapena dakarren ebazpenen bat.

Aditzera eman da bilkura bat egin zela elkarteekin eta hartan erabaki zela prentsaurreko bat ematea arazo horren berri emateko eta jendeak kontzientzia hartzeko.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

8. PUNTUA.- Presidentearen informazioa.

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Parlamentuan tramitatu dela Animaliak Babesteko Foru Legea. Zuzenketak aurkeztu dira udalerrien betebeharrak mugatzeko 5.000 biztanletik gorakoetara. Animaliak babesteko elkarteek uste dute 5.000 biztanletik beherakoak ere salbuetsi beharko zirela.
- Bilkura bat egin zela hilaren 19an Kulturaren Funtzaren barneko udalerrri txikiekin. Zenbait proposamen kultural egin ziren udalerrri txikientzat.
- Jardunaldi bat egin zela despopulazioari aurre egiteko martxoaren 25ean 1234/2018 Errege Dekretua azaltzeko.
- Bilkura bat egin zela hilaren 6an Hezkuntza Departamentuarekin, non aurkeztu baitziguten 0-3 urteak kudeatzeko behin betiko proposamena.
- Bilkura egin dela Lekunberriko alkatearekin lapurtutako haurren inguruan, gai horrek eskualdean duen eraginagatik.
- Sinatu dela berdintasunaren hitzarmena.
- Bilkura bat egin dela gaur kontzejuen taldean, non aztertu baita zer parte-hartze izan behar duten kontzejuak NUKFn, eta hori kontuan hartuko da plan estrategikoaren elaborazioan.
- Deialdia egin zaiola talde estrategikoari hilaren 29rako.
- Poliziei buruzko Foru Legea. Kontsulta egin zaiola ministerioari aurrekontuei buruzko legeak polizien ordainsarien aplikazioan izan dezakeen eraginaz, polizien gaineko txostena prestatzeko lanen barnean.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko zazpiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.